

AMA DOLORETAKOARI.

*Errukiturik zeruko Ama
Zure dolore samiañaz
Nere biyotza penak darama
Zuganontz negar egiñaz.*

Anima triste, biyotza penaz
Beterik nator zugana,
Nerez utsa naiz, Ama maitea,
Zugandik bear det dana;
Indazu arren grazia, oso
Gogor eskatzen dedana
Kanta ditzadan zure dolore
Zazpirak, danak bat-bana.

Errukiturik.....

Simeonek dizu aurriz agertu
Zure Jesusen eriotza
Nola ikusi bear zenduen
Gurutze baten ill-otza;
Berri au bai da ¡au, nere Ama!
Ezpata guziz zorrotza,
Erdi-erditik penaren andiz
Zatitu dizu biyotza.

Errukiturik....

Nolabait ere salbatutzeko
Aurcho Jesusen biziya
Ikusten zaitut Ejiptorako
Oraiñ bidian asiya;
Aurra besoan, denbora otza
Bide charra ta luzia,
¡Ai! Zein samiaña izan zitzaizun
Sufritzea au guzia.

Errukiturik....

Jerusalenen Jesus gelditu
Eta bazuaz echera
Palta zaitzunik arterañoan
Konturatutzen etzera;
Iru egunta iru gaubetan
Billa irtenik atzera
Penaren penaz, ¡ai Ama ona!
Iya bazatoz iltzera.

Errukiturik...

Amargurako kalia Jesus
Arantzaz koroatua
Gurutze-pean bi lapur eta
Etsayez inguratua
Ikusten dezu ¡Ama tristea!
Seme aiñ adoratua;
¿Atsekabeak nola etzaitu
Uzten oso zoratua?

Errukiturik...

Gurutz-ondora zugana nator
Kalbarioko mendira
Jesus ikutez an illik dator
Negarra nere begira,
Miñaren miñaz baldin arkaitzak
Berak puskatzen badira
¿Nola zaude zu, Jesusen Ama,
Nola zu ari begira?

Errukiturik....

Ildako bat ta naiz bere amaz
 Edozeñek du erruki
 Zure semea gurutzan illaz
 Kontu au ez da iduki;
 Soldadu batek lantzadaz dio
 Bere sayetza idiki
 Ta zuri berriz golpe berakin
 Biyotza zaitzu ebaki.

Errukiturik...

—
 Laztanez bete ondoan zure
 Semearen arpegia
 Obi batian sartutzen dute
 Gorputz adoragarria,
 Azken agur au ¿ez da zuretzat

¡Ama! pena chit andia!
 Bai nere seme pekataria
 Niretzat da geyegia.

Errukiturik...

—
 Bakardadian zuri nai dizut
 Nere Ama egin lagun
 Aldendu gabe zugandik beti
 Egoteko gau ta egun;
 Jesus zurekin maitatutzea
 Orra danok zer nai degun
 Zeruau beti beti gloriya
 Biyokin izan dezagun.

Errukiturik...

PEDRO MIGUEL URRUZUNO-KOAK.

1882-ko Marchoan.

JESUS MAISU DIBINOAREN

ZAZPI-ITZAK.

Gurutzean josirik, ta esan al baño pena ta tormentu andiagoakin bazegoen ere, Katedra edo leku altu artatik zeruko dotriña guri erakusteko, Jesu-Kristo, gure Jaunak, zazpi itz misterioz beteak esan zituen.

Lenengo itza Redentore maitearen ofizioa egiteko, bere persegido-reentzat barkazioa Aita Eternoari eskatzea izan zan: «*Nere Aita: barkazaiezu, bada zer egiten duten eztakite.*»

Bigarrena izan zan lapur onari salbazioa seguratzea. Onek esan zion: «Jauna, zure Erreinora zoazenean, nizaz akorda zaita.» Eta Zeruko Erregeak gurutzetik eranzun zion: «*Seguru zaude; gaur Paradisuan nerekin egongo zera.*»